



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



FUNDACION
ORFEON DONOSTIARRA
FUNDAZIOA

XVI. DONOSTIAKO ORFEOIA – UPV/EHU

SARIA



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



FUNDACION
ORFEON DONOSTIARRA
FUNDAZIOA

Juanjo Mena zuzendariari eta Mario Lerena ikertzaileari eman diete aurtengo XVI. Donostiako Orfeoia – UPV/EHU Saria, musikaren sorkuntzan izandako lan ibilbidea nabarmentzeko eta musikaren inguruko ikerkuntza sustatzeko.

Epaimahaiak, Orfeoiak eta UPV/EHUK elkarrekin izenpetutako hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak osatuak, Juanjo Menari eman dio sari nagusia, musikaren munduan egin duen lanagatik eta ibilbide nabarmenagatik, eta musika ikerketaren saria, berriz, Mario Lerena Gutiérrezi eman dio, *'La música teatral de Pablo Sorozabal Mariezcurrena (1897-1988): Ensayo de análisis'* doktorego tesiagatik.

Sariak martxoaren 10ean banatuko dira, 19:00etan, UPV/EHUko Ignacio Maria Barriola Ikastegiko entzunaretoan, Donostian, eta banaketa ekitaldian izango dira Donostiako Orfeoiko presidente José María Echarri eta UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko errektoreorde Agustín Erkizia. Ekitaldia bukatzean, Donostiako Orfeoiak emanaldi ireki bat joko du.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



FUNDACION
ORFEON DONOSTIARRA
FUNDAZIOA

JUANJO MENA (Vitoria-Gasteiz, 1965)

Juanjo Mena musika klasikoaren nazioarteko zirkuituan ospe handiena duten zuzendari espainiarretako bat da. Gaur egun, BBC Philharmonic orkestraren zuzendari titularra da, eta Cincinnati May Festival jaialdiaren zuzendari nagusia. Aurretik, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari titular eta artistikoa izandakoa da, eta Bergen Filharmoniske Orkester-eko eta Genovako Carlo Felice Teatroko zuzendari gonbidatu nagusia.

Iaz, Musikaren Sari Nazionala irabazi zuen interpretazioaren modalitatean, "hamar urte hauetan mundu osoko agertoki nagusietan eta orkestra ospetsuenak zuzentzen egindako ibilbide profesionalagatik, batetik, eta Manchesterko BBCren Orkestra Filarmonikoko zuzendari titular gisa egindako lanagatik, bestetik". Epaimahaiak, gainera, agerian jarri zuen "Espainiako musika klasiko eta garaikidea kontzertu aretoen eta grabazio estudioen bidez zabaltzeko daukan konpromisoa".

Izen handiko taldeak zuzendu ditu: besteak beste, Berlingo Filarmonikoa, Rotterdango Filarmonikoa, Oslo Filharmonien, Orchestre National de France, Orchestra Filarmonica della Scala, Milan, Münchner Rundfunk Orchester, Dresdner Philharmonie, Dresdner Philharmonie, Royal Stockholm Philharmonic eta Danish National Symphony Orchestra, baita Espainiako orkestra nagusiak ere.

Halaber, Estatu Batuetako orkestra garrantzitsuenak zuzendu ditu: Chicagoko, Bostongo, Baltimoreko, Hustongo, Cincinnatiako eta Pittsburghheko sinfonikoak, New York Philharmonic eta Los Angeles Philharmonic, Cleveland eta Philadelphia Orchestra, beste hainbaten artean.

Operako zuzendari gisa, errepertorio erromantikoko antzezlan nagusiak zuzendu ditu: *Der fliegende Holländer*, *Salome*, *Elektra*, *Ariadne auf Naxos*, *Duke Bluebeard* eta *Erwartung*, eta *Eugene Onegin* Genovan, *La vida breve* Madrilen, *Le nozze di Figaro* Lausannen eta *Billy Budd* Bilbon.

Duela gutxi, gainera, konpromisoa hartu du Suediako Irratiko Orkestra Sinfonikoa, Japoniako NHK Orkestra Sinfonikoa eta Washington National Symphony Orchestra zuzentzeko eta Boston Symphony, Orchestre Symphonique de Montréal eta London Philharmonic Orchestra taldeen denboraldietara itzultzeko.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



FUNDACION
ORFEON DONOSTIARRA
FUNDAZIOA

BBC Philharmonic orkestrarekin biran ibili da Alemanian, Austrian, Txinan, Hego Korean, Hungarian, Kroazian, Eslovenian eta Espainian, eta Londresko BBC Prom ospetsuetan parte hartu ohi du.

Orain, BBC Philharmonic taldearekin grabaketak egiten ari da Chandos zigilu diskografikorako. Enpresa espezializatuak kritika onak egin dizkie Alberto Ginastera, Isaac Albéniz, Manuel de Falla, Gabriel Pierné, Xabier Montsalvatge, C.M. von Weber eta Joaquín Turinari omenaldi gisa eginiko disko argitaratuei.

Sustraiak

Nazioarteko orkestrak zuzentzen hasi aurretik, Mena Euskal Herrian ibili zen, herri folklorea eta koroak lantzen. 1997an, Eusko Jaurlaritzak EGO Euskal Herriko Gazte Orkestra osatzeko agindu zion, eta, ondoren, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari elkartu bihurtu zen. 1999tik 2008ra, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari artistiko eta nagusi izan zen.

Orfeoia talde horrekin jarri zen haren agindupean aurrenekoz, 1996ko Musika Hamabostaldiaren barruan Zestoako Foruen Plazan aire zabalean eginiko kontzertu batean. Polifonia, zarzuela eta opera zatien kontzertuan lehen lerroko bi bakarlarari aritu ziren: Carlos Álvarez eta María Bayo. Urte hartan bertan, Menak EOSeko musikariak eta orfeoilariak gidatu zituen Francisco Escuderoren *Illeta* oratorioaren bidez, Zarauzko Kiroldgian. Handik hamar urtera, berriro batu zituen Bilboko Sinfonikoa eta Orfeoia, Mozarten *Requiem* eta Arriagaren *Stabat Mater* zuzentzeko hiru agertokitan: Salamancako Arte Eszenikoen eta Musikaren Zentroan, Entzunareto Nazionalean eta Santanderko Jaialdien Jauregian.

Menak ez du ahaztuko ez nondik datorren ez nola barneratu zen musikaren munduan musikaririk ez zegoen familia baten barruan. Samaniegoko eskolan hasi zen musikara hurbiltzen, eskolaz kanpoko jarduera gisa musika eskolak jasoz Antxon Lete irakasle erabakigarriaren eskutik. Han, Menak eta haren anaia Carlos Mena kontratenorrak euren bokazioari bide eman ahal izan zioten, ikastetxeko eskolanian abestuz. Ez ditu ahaztekoak bere irakasle Carmelo Bernaola, Enrique García Asensio eta Sergiu Celibidache ere.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



FUNDACION
ORFEON DONOSTIARRA
FUNDAZIOA

MARIO LERENA GUTIÉRREZ (Getxo, 1981)

Mario Lerena Gutiérrez, pianista eta musikologoa, Bilboko J.C. Arriaga Kontserbatorioko pianoko eta ganbera musikako goi mailako irakaslea, Musikaren Historian eta Zientzietan lizentziatu zen Errioxako Unibertsitatean, cum laude doktorea izan zen, eta UPV/EHUren Doktorego Sari Berezia lortu zuen 2016an.

Argitalpenak eta biltzar akademikoak egiten ditu Göttingeneko Unibertsitatean (Alemania), Centro Studi Opera Omnia Luigi Boccherini zentroan (Italia), Eusko Ikaskuntzan, Espainiako Musikologia Elkartean, Musika Zientzien Konplutentse Institutuan, Oviedoko Unibertsitatean, Valentziako Unibertsitatean eta Jacinto e Inocencio Guerrero Fundazioan. Halaber, dibulgazio lanak egin ditu ABAO/OLBERako, Donostiako Musika Hamabostaldirako eta Zarzuelako Antzokirako.

Pianista gisa, estatuko zenbait erakunderekin lan egin du: Bilboko Arriaga Antzokiarekin, Santanderko Nazioarteko Jaialdiarekin, Bizkaiko Orkestra Sinfonikoarekin eta Tolosako Hodeiertz Abesbatzarekin, besteak beste. 2006an, Helsinkiko Unibertsitateak musikako berezitasun nazionalen buruzko kontzertu eta hitzaldien ziklora gonbidatu zuen. 1999an, Parisko UFAM Nazioarteko Musika Lehiaketako epaimahaiak lehen saria eman zion aho batez.

2011z geroztik, eskolak ematen ditu Barakaldoko Udal Musika Kontserbatorio Profesionalean.

Haren doktorego tesi saritua Pablo Sorozabal konpositore donostiarrari buruzko lehen monografia da, 1986an argitaraturiko bere memoriak alde batera utzita. Herritarren artean izugarri zabaldutako errepertorioa beste ikuspegi batetik eta kritikoki aztertu du, itzal handiko musikarietako baten bidez. Ikergai ditu autore horren lan ibilbidea eta konposatzeko teknikak, haren zenbait lan ezagun abiapuntu hartuta: *Katiuska* (oinetako mota bat izendatzera iritsi zen), *Marcelino, pan y vino* eta *Maite* zortzikoa, esaterako.

Azterlanak azaltzen du konpositoreak aintzat hartu zituela tokiko tradizioak (besteak beste Azkue eta Donostia folkloristen lanaren bidez jasotakoak, baina baita familiako sustraiak eta Donostiako kaleekin umetan izan zuen harreman estua ere), eta bere egin zuela bere sasoiko modernotasun kosmopolita (jazza eta gerra arteko germaniar abangoardia).



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



FUNDACION
ORFEON DONOSTIARRA
FUNDAZIOA

Gainera, analisirako metodologia original bat erabili du: semiotika musikalaren baliabideak egokituz, testuinguru teatral eta literario jakin batzuei lotutako musikaren espezifikotasun espresiboaren berri ematen du. Metodologia berritzaile hori etorkizunean antzeko beste erreperitorio batzuk ikertzeko erabil daiteke, musika beste adierazpide batzuekin uztartzeko.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



FUNDACION
ORFEON DONOSTIARRA
FUNDAZIOA

AURREKO EDIZIOETAN SARITUTAKO PERTSONA OSPETSUAK ETA ERAKUNDEAK

- Antón García Abril
- Tomás Aragüés
- Francisco Escudero, in memoria
- Javier Bello-Portu, in memoria
- José Luis Ansorena
- José Manuel Azcue
- Coro Easo
- Imanol Urbiet
- José Antonio Echenique
- José Ignacio Ansorena
- Tolosako Ekinbide Etxea (TEE)
- Javier Busto
- Fernando Etxepare (in memoriam)
- Valentziako Komunitateko Musika Elkarten Federazioa (FSMCV)
- Errenteriako Musika Kultur Elkartea (EMKE)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



FUNDACION ORFEON DONOSTIARRA FUNDAZIOA

AURREKO EDIZIOETAN

MUSIKA IKERKETAREN ARLOAN SARITUTAKOAK

- María Carmen de las Cuevas, "Orfeón Donostiarra 1897-1997: proyección social, cultural y educativa" lanagatik.
- Esteban Elizondo, "La organería romántica en el País Vasco y Navarra (1856-1940)" lanagatik.
- Martín Baeza Rubio, "El maestro Fernández Arbós y su relación con Donostia y el Orfeón" lanagatik.
- Gotzon Ibarretxe, "El movimiento coral vasco: tradición, cultura y educación" lanagatik.
- José Ramón Vitoria, "Aptitudes musicales y aprendizaje instrumental de personas con necesidades educativas especiales" lanagatik.
- Paulino Capdepón, "La música vasca en la época barroca: Juan García Salazar (1639-1710)" lanagatik.
- Isabel Díaz, "La canción para voz y piano en el País Vasco entre 1870 y 1939" lanagatik.
- Juan González Castelao, "Ataúlfo Argenta. Claves de un mito de la dirección de orquesta" lanagatik.
- Itziar Larrinaga, "Francisco Escudero: vida y creación musical" lanagatik.
- Josu Okiñena, "La comunicación autopoietica, fundamento para la interpretación musical: su estudio en la obra para voz y piano de José Antonio Donostia" lanagatik.
- Jagoba Astiazaran, "Vatikanoko II.kontzilioa eta euskal musika eta instrumentu tradizionalak" lanagatik.
- Nerea Muruamendiaraz, "Educación musical y danza tradicional, un estudio descriptivo" lanagatik, eta Olimpia García López, "Norberto Almandoz Mendizábal (1893-1970): Vida y obra" lanagatik.
- Antonio Ezquerro, "El maestro Nicolás Ledesma: un caso referencial vasco en el contexto del romanticismo musical pan-hispánico" lanagatik, eta Agustín Mendizábal, "Iparraldeko herri-kantaera tradizionala. Intonazio anbigua" lanagatik.
- Miguel López Fernández, "La aplicación del Motu Proprio sobre la Música sagrada de Pío X en la Archidiócesis de Sevilla 1903-1910" lanagatik, eta accesit bat María Dolores Moreno Guili, "La canción con piano de Joaquín Rodrigo" lanagatik.
- Daniel Moro Vallina, "El compositor Carmelo Bernaola (1929-2002). Contextualización y análisis de su obra en la vanguardia musical española" lanagatik, eta accesit bat Mercedes Albainari, "Ocio formativo musical. Análisis de iniciativas en los programas universitarios para mayores y en las orquestas sinfónicas de España" lanagatik.